

## Espezialitate berriak eskuratzeko baldintzak

Espezialitate berriak eskuratzeko prozeduran onartuak izateko, izangaiek bete behar hauek bete beharko dituzte:

A) Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioa izatea, eta behin-behineko edo behin betiko destinoa Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan izatea.

Eszedentzian dauden funtzionarioen kasuan eta, orobat, kanpoko lanpostuei atxikita edo antzeko egoeraren batean daudenen kasuan, bete behar hau destinoko azkeneko ikastetxean betetzea eskatuko da.

B) Eskuratu nahi den espezialitatea zein den, bertan txanda irekian sartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzea.

Irakasle funtzionarioek ezin izanen dute parte hartu baldin eta behin betiko destinoa beste hezkuntza administrazio batzuetan badute eta Foru Komunitatean zerbitzu eginkizunetan edo antzeko egoeran badaude.

Oinarri honetan aipatutako bete behar guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira eta karrerako funtzionario gisa lanpostuaren jabetza hartu arte betetzen jarraitu.